

Marlen Haushofer | 'Horma'

## Marlen Haushoferren 'Horma', istorio «itogarria», lehen aldiz euskaraz

Naroa Zubillagak itzuli du Erein argitaletxearentzat idazle austriarraren lanik garrantzitsuena, kultuzko obra bilakatu dena



Naroa Zubillaga, 'Horma' liburuaren aurkezpen amaieran. Boja Luna



**Jon Agirre**  
Donostia

Viernes, 16 de junio 2023, 16:57

+ Seguir

Comenta




Emakume batek gertatu zaiona eta gertatzen ari zaiona azaldu eta ulertzeko bulkadatik idatzia dago Marlen Haushoferren 'Horma' (Erein), istorio «itogarria». Lagun batzuekin Alpeetako ehiza-txabolara doa protagonista eta hauek ondoko herrira joatean bakarrik uzten dute. Itzultzen ez direla ikusita kanpora irten eta horma ikusezin batek inguratzen duela ikusten du. «Mundutik isolatuta dago».

Naroa Zubillagak ekarri du lehen aldiz euskarara 1964an idazle austriarrak idatzitako liburua, ziurrenik bere lanik garrantzitsuena, kultuzko obra bilakatu dena. Hori bai, hainbat sari irabazi zituen arren, hil arte ez zitzaion merezi duen aitortza egin. Egun gerraosteko literatura alemaniarraren erreferente nagusietako bat da.

Zubillagak azaldu bezala narratzailearen ahotsetik ezagutzen du gertakarien berri irakurleak, ez baitago «ez dago ez atalik eta ez elkarrizketarik ere». Horrek irakurketa «literatur ariketa» bihurtzen du irakurlearentzat, baina aldi berean «kontakizuna bera oso indartsu» egiten du. Ildo horretan, pista gehiegirik eman nahi izan gabe, azalpen txiki bat eman nahi izan die irakurle potentzialei: «Kontatzen direnak entzunda zientzia fikzioa edo distopia bat dela pentsa dezake, horma ikusezin bat dagoelako eta hormaz bestalde harri bihurtu diren pertsona eta animaliak daudelako, baina elementuak keinua besterik ez dio egiten, ez du horrelako pisurik».

'Horma'



**Egilea:** Marlen Haushofer.

**Itzultzailea:** Naroa Zubillaga.

**Estiloa:** Helduentzako literatura.

**Argitaletxea:** Erein.

**Orrialde kopurua:** 288.

**Prezioa:** 22 euro.

Itxialdi betean irakurri zuen Uxue Razquin Erein argitaletzeko editoreak 'Horma' liburua eta sortutako ezinegonak bultzatu du aurkeztutako proiektua. «Oso gaizki pasa nuen, irakurleak bestelako horma bat topatu du». Razquinen aburuz aurkeztutako lanaren planteamendua «oso originala» da, bai idazteko moduagatik zein lantzen duen gaiagatik eta sortzen dituen hausnarketengatik. «Bizirauteak feminismo eta ekologiari buruz hausnarketa interesgarriak planteatzeko balio dio», zehaztu du. «Horregatik interesgarria da, ezberdina, normalean horrelako formatuan ez ditugulako irakurtzen. Kontakizun bat da, baina ez dago egun batetik besterako ezberdintasunik. Barrura begirako ariketa bat da, introspektzioa», gehitu du Zubillagak.

Istoria kolpez kontaktua dago, inolako eten edo estrukturarik gabe. «Txosten moduko bat da»,

Ereineko argitaletxeak azaldu duenez, «eguneroko moduan ere irakur daitekeena». Hala, egoera «zail eta itogarri» horren aurrean idazkera «sosegatuak» harritu egin zuen Razquin, baina darabiltzan «deskribapen pesimistek» ere.

Temas Erein Argitaletxea

Comenta

Reporta un error

Publicidad

Lo más leído

Top 50 >

1 · **El 'enigma' Dylan: así serán las dos citas, sin móviles, que no llenarán el Kursaal**

2 · **El Azkena Rock cierra con un enorme Iggy Pop y casi 50.000 espectadores**

3 · **El aviso del inicio: «El uso del móvil conlleva la expulsión inmediata»**

4 · **Cómo traer un Bacon: así se monta la gran exposición que acogerá Tabakalera en verano**

5 · **¿Cuánto vamos a echar de menos a Jorge Javier Vázquez?**

Ver más

Publicidad

No te pierdas...



Dos años sin el Koldo Mitxelena

**La UPV envía por correo electrónico notas erróneas a los alumnos de Selectividad**

**Ecologistas en Acción otorga banderas negras a dos enclaves de Gipuzkoa**